

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACIONDESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak %18,5 gehitu ditu hizkuntza-eskola ofizialetako plazak datorren ikasturterako

Guztira, 8.445 plaza eskainiko dira Corellan, Lizarran, eta Iruñean, Zangozan, Donezteben, Tafallan eta Tuteran.

Viernes, 03 de agosto de 2012

Nafarroako Gobernuak %18,5 gehitu ditu hizkuntza-eskola ofizialetako (HEO) plazak datorren ikasturterako. Horrela, [Iruñeko](#), [Tuterako zentroek](#) eta [urrutiko modalitatean](#), guztira, 8.445 plaza eskainiko dituzte aurreko urteko 7.125 plazaren aurrean, hau da, 1.320 gehiago.

Hizkuntzak irakatsiko diren egoitzen kopurua ere gehitu egin da. Hirutik zazpi izatera pasatuz, Exekutiboak hasitako deszentralizazio-politikarekin bat. Zehazki, eskaintza Lizarran, Iruñean eta Tuteran zabalduko da eta azpi-egoitzak Corellan, Zangozan, Donezteben eta Tafallan sortuko dira.

Gainera, klase presentzialak urtean 10 ordu gehiago izango dira, irakasleen zuzeneko irakaskuntzako ordutegia gehitu egin baita. Ikasleek urtean 140 ordu jasoko dituzte egun jasotzen dituzten 130 orduren aurrean; horrek irakaskuntza hobetzea eragingo du.

Horiek dira Nafarroako HEOen berrikuntza nagusiak 2012-2013 ikasturterako; zeinak, gaur aurkeztu diren Jose Iribas Hezkuntzako kontseilariak eta Marcelino Arrosagaray Hizkuntzen eta Irakaskuntza Artistikoen Zerbitzuetako zuzendariak eskaini duten prentsaurrekoan.

1.320 plaza gehiago

HEOek, guztira, aurtengo ikasturtean baino 1.320 plaza gehiago eskainiko dituzte. Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofiziala da gehikuntza handiena izango duena, zehazki, %61,27koa, aurtengo ikasturtean 1.854 plaza izatetik hurrengo ikasturtean 2.990 plaza izatera pasatuz (1.136 gehiago; horietatik 150 presentzialak izango dira, irakasleei zuzenduak, eta 986 urrutikoak, helduei zuzenduak That's English ikastaroaren bitartez). Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialek, %5eko gehikuntzarekin, 250 plazatik 1.325 plazara pasatuz (hau da, 75 gehiago) eta Iruñeko zentroak %2,71eko gehikuntzarekin, 4.021tik 4.130ra pasatuz (109 gehiago) jarraitzen diote.

Horietatik guztietatik 200 plaza irakasleentzako erreserbatu dira, 50 Tuteran eta 150 urrutiko zentroan, irakasleek B2 eta C1 mailetan hizkuntza-eskakizunak egiazta ditzaten. Horiek guztiak plaza berriak dira eta Nafarroako hezkuntza-sistema hobetzea dute xede.

Hizkuntza-eskola ofizialek bost hizkuntzatan irakasten diete (alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiera) 16 urtetik gorakoei. Datorren ikasturterako izen-ematea, gehienez, 153,70 euro kostatuko da, 49/2012 Foru Aginduarekin bat: 9,70 euro zerbitzu orokorretarako; 106,10 euro matrikulako; 22,90 euro lehenengo aldiz izenemateagatik; eta 15 euro erreprofragiagatik. Zenbateko hori txikiagoa izango da, kasuen arabera; esate baterako, maila bereziko familia ugariko kideak, ekintza terroristen biktima direnak eta horien ezkontidek eta seme-alabak doan ere izan dezakete.

Urteko plangintza

Hezkuntza Departamentuak, urtero, hizkuntzak ikasteko eskaintza egiten du jarraian zehazten diren irizpideen arabera:

- Enplegarritasunaren sustapenarekin lotura gehien duten hizkuntzen eta ikaskuntza-modalitateen aldeko apustua, mailen ziurtagiri ofizialek lan-munduan sartzeko aukerak gehitzen baitituzte.

- Herritarren eskariari arreta eskaintzea. Datorren ikasturterako matrikularen emaitzek eskaintza eskarira eta gizartearen beharretara doitzea ahalbidetuko dute modalitate presentzian (Iruñeko eta Tuterako HEOak) eta urrutiko modalitatean (That's English eta Nafarroako Gobernuak hizkuntza desberdinetan egiten duen online eskaintza).

- Ikastetxeetako sarearen eta Gobernuaren baliabideen arteko osagarritasuna. Hizkuntzei tratamendu berezitua emango zaie hezkuntza-sisteman duten errotzearen eta presentziaren arabera eta, baita, Gobernuaren beraren beste unitate batzuen eskaintzari ere. Horrela, HEOak eskari handiena duten hizkuntzetan menderatze-maila handiena eskuratzean oinarritzen dira (C1 ingelesean eta euskaran) eta beren eskaintza hastapeneko mailetan doitu egiten dute derrigorrezko eskola-etapen nahiz beste instantzia eta modalitate batzuen bitartez, esate baterako, That's English ingeleseko urrutiko ikastaroa, Administrazio Publikoko Institutu Nazionalaren (INAP) eta helduei zuzendutako zentroen ikaskuntza-eskaintza, estalita dauden hizkuntzetan.

- Baliabideen optimizazioa. HEOetako irakasleak, batez ere, irakastera eta ikasleak zuzenean artatzera dedikatuko dira; horrek, urteko ordu presentzialen kopurua 130etik 140ra gehitzea ahalbidetuko du.

- Eskaintza deszentralizatzea. 2012-2013 ikasturtetik aurrera, Nafarroako zazpi egoitzatan ingelesez irakatsiko da (Corella, Lizarra, Iruñea, Zangoza, Doneztebe, Tafalla eta Tuter) ikasteko aukerak Foru Komunitateko zona desberdinetara hurbiltzeko asmoz.